

sociedad

gipuzkoa

sociedad@noticiasdegipuzkoa.com

KILOMETROAK 2006 >

Eguraldiak aurreikuspen guztiak hautsi eta jendetza erakarri zuen Oiartzunera

BALORAZIO "GUZTIZ POSITIBOA" EGIN ZUTEN ANTOLATZAILEEK ARRATSALDE PARTEAN

Martxan jarritako berrikuntzak, edalontzi berrerrabilgarriak kasu, arrakastatsuak izan ziren

IMANOL MANTEROLA

OIARTZUN. Eguraldi onak eta jendetza ikaragarriak arrakastatsu egin zuten atzo Oiartzunen ospatutako Kilometroak jaia. Milaka euskaltzale bildu ziren Haurtzaro Ikastolaren proiektu eta beharrei bultzada emateko asmoz eta, ondorioz, balantze "guztiz positiboa" egin zuten.

Goiz goizetik hasi zen jendea Oiartzunera iristen. Esate baterako, goizeko 9.30erako 3.000 pertsona iritsi ziren Renferen trenetan. Datu horiek, ordea, txiki geratu ziren ordu batzuk geroago.

Ikastolako jolastokia jendez lepo zegoen jaiaren inaugurazio ekitaldia hasterako. Aurreko egunetan haurrak aritu ziren lekua egun berezarako prestatzen, eta kolorez beteta zeuden eraikineko leiho eta paretak.

Bertan, Haurtzaro Ikastolako eta euskal erakundeetako ordezkari ezberdinek hartu zuten hitza. Ondoren, aurtengo Kilometroetako kantuarekin egindako koreografia dantzatu zuten haur, langile, guraso eta intxixuak, aurtengo logoa agertzen den pertsonaiak.

Txalo zaparradaren ostean ofizialki inauguratu zen ibilbidea. Horretarako, ikastola osatzen duten hiru taldeetako ordezkariak moztu zuten zinta, hain zuzen, Haizea Izargarai ikasleak, Iñaki Garmendia gurasoak eta Jaione Irigorri irakasleak. Segidan, kilometroak egiteari ekin zioten bertan bildutakoek.

Ordurako, jaialdiaren antolakuntzan parte hartutako bolondresak prest zituzten gune guztiak, baita txosnak, arropa salmentarako guneak eta bestelakoak ere. Eguraldia ere portatu zen hasieratik, zeru garbia eta hego haizea izan baitzen egun osoan zehar.

Eguneko beste ekitaldi nagusia eguerdian burutu zen. Haurtzaro Ikastolaren ia 40 urteko ibilbidean izandako lehendakariak omendu zituzten, nolabait, Oiartzungo herriak ikastolari eskainitako babesa eta laguntza eskertzeko. Julian Bergaretxe, Roman Irioi, Juanito Iñarra, Martxel Ansa, Jesus Mari San Roman, Juan Inazio Ansa, Iñaki Portugal, Anjel Bergaretxe, Kokin Gartzia eta Arantza Manterola izan dira, hurrenez hurren, ikastolako lehendakariak. Omenaldiaren ondoren, Bergarako Aranzadi Ikastolak datorren urteko Kilometroak jaia ospatzeko lekukoa hartu zuen.

Jendeak garraio publikoa erabili zuen Oiartzunera joateko eta, ondorioz, aparkalekuak ez ziren guztiz bete

Juanito Iñarra, Martxel Ansa, Jesus Mari San Roman, Juan Inazio Ansa, Iñaki Portugal, Anjel Bergaretxe, Kokin Gartzia eta Arantza Manterola izan dira, hurrenez hurren, ikastolako lehendakariak. Omenaldiaren ondoren, Bergarako Aranzadi Ikastolak datorren urteko Kilometroak jaia ospatzeko lekukoa hartu zuen.

Orotara, zazpi gune ezberdin kokatu zituzten antolatzaileek ibilbideko zazpi kilometroetan. Ugaldeko, Iturriotz, Altzibar, Elizalde, Ikastola, Sagarbisti eta Martietan jarri ziren gune horiek. Ugaldeko, esate baterako, musika izan zen nagusi egun osoan zehar. Goizean, Iñaki Labaka, Maider eta Ixiar, eta Amaieur taldeek emanaldi bana eskaini zuten. Tartean, trial sin erakustaldiaz ere gozatu zuten bertaratutakoek. Arratsalde partean, Desoreka, Banda Bassotti eta The Huskeys taldeen doinuak izan ziren entzungai. Azken honek The Solanosen hutsunea bete zuen, bateria joleak izandako istripu batengatik ezin izan zutelako Oiartzunen izan. Hirugarren eta laugarren guneetan, Elizalde eta Altzibarre alegia, musikak ere tarre handia izan zuen. Gozategi, Trikizio, Ukan, Nekin eta Betagarri taldeak izan ziren bertan, besteak beste.

Haurtzarotzat ere bazegoen zer ikusi. Bereziki beraiantzat prestatuak gunea zen bosgarrena. Pailazoak, Txan magoa eta Betizuak lagun izan zituzten txikiak.

JENDE UHOLDEA Balorazio "guztiz positiboa" egin zuten antolatzaileek arratsalde partean. Duela 14 urte ere Oiartzunen antolatu zen Kilometroak jaia, baina garai hartan eguraldia ez zuten lagun izan. Zorionez, atzokoak ez zuten zeri-kusirik izan 1992ko jaialdiarekin, eta horrek, noski, jende uholdea erakarri zuen.

Ekimen berritzaile ugari jarri zituzten martxan antolatzaileek, eta guztiak arrakastatsuak izan direla esan daiteke. Batetik, *Ondo pasa, pasatu gabe* leloa ezagutarazi zuten norbera eta besteengana errespetua mantentzeko. "Festa jator eta eredugarria" izan dela uste dute antolatzaileek, eta eskerak eman dizkiete leloa bere egin dutenei.

Bestetik, apustu garrantzitsuetako bat zabor kopuru gutxiago



Adin guztietako jendea bildu zen atzoko jaialdian. ARGAZKI ERREPORTAJEA: RUBEN PLAZA